


GG GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Babeslea:



VOLKSWAGEN
AKTIENGESELLSCHAFT

Motion. Autos, Art, Architecture erakusketak ehun urtetik gorako epean automobilgintzak izan duen bilakaera du aztergai, eta arlo horrek arte plastikoekin eta arkitekturarekin dituen lotura ugariak arakatzen ditu. Erakusketa osatzen duten ibilgailu, pieza artistiko eta arkitekturako dokumentu sorta zabal-zabalak ibilbide bat egiten du automobilgintzaren eremuan erdietsitako lorpen teknologiko nagusietatik, izan dituzten inplikazio sozial eta kultural itzelekin uztartuta.

Automobilaren asmakuntzatik, bai bere itxura distiratsuak, bai abiadurarekin, abentura-senarekin, autonomiarekin, modernotasunarekin eta aurrerapenarekin dituen loturak, artistak eta arkitektoak liluratu zituzten, haien sorkuntzetan behin eta berriz agertzeraino. Era berean, abangoardia artistikoaren ideiek eta formek eragina izan zuten automobilgintzako diseinuan, eta arte eta arkitekturako figura ospetsuekin kolaborazio ezagunak egin ziren.

Ia berrehun urteko sorkuntzaren ibilbide osoa proposatzeaz gain, automobilgintzak beste hainbat produkzio-sektorearekin partekatzen duen elektrifikaziorako joera geldiezinari heltzen dio erakusketak, eta industria horrentzako etorkizuneko aukerak iradokitzen ere ausartzen da. Aukera horiek, espezialista guztien arabera, hiru ardatz nagusi partekatzen dituzte: teknologia digital berrien erabilera, diseinuaren berrikuntza eta energia berriztagarrien eta ekonomia zirkularraren bidez ingurumena ahalik eta gehien zaintzea.

Autoa, batez ere, zaldiek tiratutako gurdiek hiri handi hasiberrietan sortzen zituzten poluzio-arazoak eta ilarak konpontzeko sortu zen. Orduan, barne-errekuntzako ibilgailuak izan ziren erantzun jasangarriena. Ia bi mende geroago, antzeko bidegurutze baten aurrean gaude, aurrerapen teknologikoei esker, ibilgailu elektrikoa erabiltzera bideratzen gaituena, ingurumenarekiko irtenbide eraginkorragoa eta begirunetsuagoa denez gero.

Egia esan, elektrizitatea beti egon da automobilgintzako asmakuntzaren historian. Hasieran, motor elektriko baten bidezko propulzioa lurrunean eta gasolinan oinarritutako prototipoekin lehiatu zen, eta, 1830eko hamarkadan, Robert Andersonek lehen auto elektrikoa garatu zuen, Sibrandus Stratinghek eskala txikian diseinatu eta fabrikatu zuena.

Norman Fosterrek komisariatutako Guggenheim Bilbao Museoaren erakusketa handi honek aukera bikaina ematen digu sektore honen iragana eta oraina ikusteko. Eta, era berean, etorkizun bat irudikatzeko, non automobilak are gehiago handituko duen gizartearen aurrerabideari eta garapen jasangarriari egiten dien ekarpena —Iberdrolaren nortasun-ezaugarri biak—, industriak estetika, funtzioa eta teknologia uztartzeko dituen gaitasunen adierazlerik onena izaten jarraitzen duen bitartean.

Ignacio S. Galán
Iberdrolako Presidente

Norbanakoen mugikortasuna dugu askatasunaren elementu behinenetako bat. Garraibiderik erabilienean, eta emozio gehien pizten dituenen, autoa da. Eta autoa luzaroan geratzekotan iritsi zaigu gure artera. 2030 urterako inoizko eraldaketarik sakonena ezagutuko du mugikortasunak, XX. mende hasieran automobilek zalgurdien tokia hartu zutenetik.

Norbanakoen mugikortasunak bilakaera zirrargarria izan du, eta bilakaera hori oso modu nabarmenean islatu izan dute automobilek, arteak eta arkitekturak. Orain, gainera, aparteko esperientzia bihurtu dute munduko museorik harrigarrienetako batean, izan ere, *Motion. Autos, Art, Architecture* erakusketa bikainean, Guggenheim Bilbao Museoak mugikortasuna, bikaintasuna eta asmamena jorratu ditu ikuspegi ezberdinetatik.

Lord Norman Foster da erakusketaren komisarioa. Haren lan zoragarriak agerian uzten du zeinen garrantzitsua den jendearen gaurko eta biharko beharrak ulertzea. Fosterren arkitekturak bizitzeko eta lanerako guneak eskainiko dizkigu datozen hamarkada luzez, are mendeetan zehar ere. Volkswagen osatzen dugunontzako, beraz, ohore handia da haren lanek hezurmamitzen duten ingeniartzaren eta diseinuaren arteko uztarketa babestea.

Autozale amorratua izaki, Lord Fosterrek beti izan du mundu guztiko pertsonentzat mugikortasun-konponbideak garatzeko interesa. Geuk ere grina bera dugunez, mugikortasuna beste maila batera eramaten dugu, eta garraio-modu berri eta jasangarriak eskaintzen dizkiogu jendeari. Volkswagen eraldaketa handia bizitzen ari da NEW AUTO estrategiaren argitan. Datozen urteetan, mugikortasuna jasangarria izango da, seguruagoa, eta askoz ere erosoagoa. Markak, diseinua eta erabiltzaileen esperientzia are garrantzitsuagoak izango dira mugikortasunaren etorkizunean, ibilgailuak bizitoki berri bihurtu ahala.

Sormena eta berrikuntza ezinbesteko faktoreak dira aldaketa eragiteko. Horrenbestez, munduko toki ezberdinetako artista, erakunde eta proiektuentzako konfiantzazko bazkide izatea du Volkswagenek bere erantzukizun korporatiboaren oinarritzko elementuetako bat.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Guggenheim Bilbao Museoko eta Norman Foster Fundazioko lantaldeei egindako lan bikainagatik: espero dugu bisitariak gustura ibiliko direla norbanakoen mugikortasuna, diseinu garaikidea, eraikuntza burutsua eta arte modernoa garai ezberdinetan jasotzen dituen ibilbide gozagarri eta inspiratzaile honetan barrena.

Herbert Diess

Volkswagen Groupen Zuzendari Exekutiboa

Motion

Autos, Art, Architecture

- Datak: apirilak 8 – irailak 18, 2022
 - Kontzeptua eta diseinua Norman Fosterrenak dira, eta komisario-lanak Guggenheim Bilbao Museoko Lekha Hileman Waitollerrekin eta Manuel Cirauquirekin bai eta Norman Foster Foundationeko lantalde batekin eta haren kolaboratzaileekin batera egin ditu
 - Guggenheim Bilbao Museoak eta Norman Foster Foundationek antolatutako erakusketa
 - Babesleak: Iberdrola eta Volkswagen Group
 - Laguntzaileak: AIC-Automotive Intelligence Center *Future* aretoan, Cadillac *Clay Modelling Studio*-n eta Sennheiser soinu-esperientzia murgiltzailean.
 - Ongilea: Gestamp
-
- *Beginnings, Sculptures, Popularising, Sporting, Visionaries, Americana* eta *Future* dira erakusketan zehar ibilbide kronologikoa osatzen duten gaikako aretoen izenak.
 - Erakusketa berezi honetako areto bakoitzak aldi historiko jakin bati edo gai zehatz bati heltzen die, diseinu industrialaren, artearen eta arkitekturaren elkargunea agerian utzita.
 - *Clay Modelling Studio* delakoarekin, Cadillac-en lankidetzari esker buztin-modelaketa tailer bat txertatu dugu erakusketan. Marka horren LYRIQ izeneko lehen ibilgailu guztiz elektrikoa fabrikatzeko metodoak jorratuko dira, ekoizpen-teknika tradizionalak eta egungoak aztertuz.
 - *Future* izeneko aretoan, —AIC-Automotive Intelligence Center laguntzaile dela antolatua—, mundu osoko diseinu- eta arkitektura-arloko hamasei eskolak egungo arazoei heltzen diete, besteak beste hirietako auto-pilaketei, baliabideen eskasiari eta kutsadurari, eta arkitekto-, diseinatzaile- eta artista-belaunaldi berriak etorkizuneko mugikortasunaz duen ikuspegiak aurkezten du bertan.

Guggenheim Bilbao Museoak *Motion. Autos, Art, Architecture* aurkezten du. Iberdrola eta Volkswagen Group babesle dituen erakusketa horrek automobilaren alderdi artistikoa goratzen du, eta bestelako arloekin lotzen, nola diren pintura, eskultura, arkitektura, argazkilaritza eta zinema. Ikuspegi integratzaile horrekin, erakusketak zalantzan jartzen du diziplina desberdinen arteko banaketa, eta bisualki zein kulturalki erlazionatzen diren moduen azterketa bat eskaintzen du.

Era berean, teknologiaren eta artearen artean dauden antzekotasunak aztertzen ditu erakusketak. Adibide gisa, agerian jartzen du haize-tunelaren erabilerak nola lagundu zuen automobilari forma aerodinamikoa ematen, azkarrago joan zedin energia modu ekonomikoagoan erabilita. Iraultza aerodinamiko horrek eragina izan zuen mugimendu futuristaren artelanetan, baita garai hartako beste artista batzuen lanetan ere;

eta, azkenean, era guztietako produktuen —etxetresna elektrikoetatik lokomotorrera— diseinu industrialean ere sumatu zen.

Erakusketarako berrogei automobil inguru bildu dira: mota bakoitzeko onenetakoen sorta bat, beren edertasuna, berezitasuna, aurrerabide teknikoa eta etorkizun-sena kontuan hartuta aukeratuak. Aretoen erdian daude kokatuta, artelan eta arkitektura-adibide garrantzitsuz inguratuta; asko lehen aldiz aurkeztu dira publiko zabalaren aurrean, orain arte ez baitira inoiz atera dagozkien bilduma pribatu edo erakunde publikoetatik.

Motion Museoko hamar gunetan zehar hedatzen da. Erakusketa osatzen duten zazpi aretoetako bakoitzak gai bati heltzen dio, ordena ia kronologikoan; hala, automobilaren hastapenetatik abiatu eta *Sculptures*, *Popularising*, *Sporting*, *Visionaries* eta *Americana* izeneko aretoetan barrena jarraitzen du, eta mugikortasunaren etorkizunak ekar dezakeenarekin amaitzen da.

Future aretoak lau kontinenteko hamasei diseinu- eta arkitektura-eskolatako ikasleen belaunaldi gaztearen lana hartzen du. Norman Foster Foundationek mende honen amaierako mugikortasuna imajinatzeraz gonbidatu zituen guztiak ere, automobila sortu zeneko bigarren mendeurrena beteko denean.

Kronologia bat eta soinu-esperientzia murgilgarri bat jasotzen dituen korridore bat, funtzionamenduan den buztin-modelaketa tailer bat eta maketei eskainitako txoko bat dira gainerako gunek.

Automobilak, beste edozein asmakuntzak baino gehiago, erabateko aldaketa eragin du gure planetako hirietako eta landa-eremuko paisaian, baita gure bizi-estiloan ere. Energia elektrikoak ekarriko duen iraultza berri baten atarian gauden honetan, erakusketa hau konbustioaren azken egunei eskainitako *requiem* antzeko bat litzateke.

Hona hemen aipatutako aretoek eta gunek biltzen duten edukiaren laburpen bat:

ERAKUSKETAREN BAITAKO IBILBIDEA

Beginnings

Automobilaren sorrerari eskainitako areto honek bezeroentzat propio diseinatutako zaldirik gabeko gurdietatik katean ekoiztitaoketara izandako trantsizioa jasotzen du; XIX. mendearen amaieran mugikortasunaz zegoen ikusmoldean oinarrituta dago jorratuta prozesu hori, argazkigintzaren eta zinemaren teknologia berrien eraginpean. Automobilaren forma aldatuz joan zen hasiera batean zuen ertz askoko itxuratik hartatik —kaxa baten antzekoa— gaur egun dituen forma aerodinamiko estilizatuak lortu arte, haize-tunelaren erabilerari esker lortuak. Forma aerodinamiko horien aitzindari izan zen XX. mendearen hasierako hamarkadetan artistek eta arkitektoek egindako lana, eta modernotasunaren beraren ikur bihurtu ziren automobiletan.

Automobilak, hasiera-hasieran, zaldiek tiratutako ibilgailuek eragiten zuten kiratsetik, gaixotasunetatik eta kutsaduratik salbatu zuen hiria. Baina, bizi dugun klima-aldaketa aroan, hirietako bilau kutsatzaile bihurtu da.

Dena den, energia elektrikoak ere presentzia nabarmena izan zuen automobilismoaren hasierako aldietan. Erakusketa honetan 1900eko Porsche Phaeton ibilgailuaren ale bat dago, gurpilen abatzetan motor elektrikoak daramatzana; kontzeptu hori iraultzaileztat jo zen Ilargiaren gainazaletik ibili zen NASAren aurreneko ibilgailu elektrikoan erabili zutenean.

Historiak zirkulua itxi du, orain iraultza berri baten atarian baikaude, non propulzio elektrikoari elkartu egin zaion “mugikortasuna zerbitzu gisa” —bidaiatzeko edo autoa partekatzeko mugikorretako aplikazioak dira horren adibide—, eta ibilgailu autonomoen aukera ere hor dago, gainera.

Sculptures

1950eko hamarkadaren hasieran Arthur Drexlerrek “gurpildun eskultura huts” gisa deskribatu zituen automobilak. Areto honetan berretsi egiten dugu baieztapen hori, nola eta XX. mendeko automobil ederrenetako lau garai bereko artista handienetako biren eskulturekin batera jarrita: Henry Mooreren *Figura erdi-etzana*, bere biribilgune leunek definitua; eta Alexander Calderren *Urtarrilak 31* mobil erraldoia, bere mugimendu etengabe eta arinagatik nabarmentzen dena.

Ibilgailuotako bakoitza bere bikaintasun teknikoagatik gailentzen da; bi, zehazki, seriean egindako errepideko ibilgailu azkarrentzat jotzen dira. Hemen, ordea, beren lerro jariakorren edertasuna goratu nahi dugu.

Artelan handiek bezala, Bugatti Type 57SC Atlantic, Hispano-Suiza H6B Dubonnet Xenia eta Pegaso Z-102 Cúpula autoek aparteko balioa dute, adituentzat egindako edizio mugatuak direnez gero. Seriean ekoitzia izan arren, Bentley R-Type Continental modeloaz ere 200 ale inguru bakarrik fabrikatu ziren. Lan horren eta artista baten estudioko lanaren arteko beste analogia bat automobilon karrozerietan ikus daiteke, artisauek banan-banan moldeatu baitzituzten, metala eskuz tolestuta haien kurba konposatuak sortzeko.

Atlantic, Jean Bugattik sortua, hainbat belaunalditan artearen eta arkitekturaren munduan buru-belarri aritutako familia bati lotua egon zen. Automobilaren ondoan *Pantera zelatan* eskultura dago, Jeanen osaba Rembrandt Bugatti artistak egina. Bi lanek mugimendua dakarte gogora.

Popularising

Areto honek automobilaren bilakaeraren hurrengo urratsa erakusten du: arrazoizko prezio baten truke eskuratzeko moduko “herriaren auto” moderno eta fidagarri bat ekoizteko saioak. Prozesua 1930eko hamarkadan hasi zen, industriak herrialde-mailan hedatzen hasi zirenean —sarritan konnotazio politikoz josita egin ere—. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, susperraldi ekonomiko eta hornidura falta puri-purian zirela, onbideratze eta harrotasun nazionalaren ikur bihurtu zen automobila.

Gerraosteko austeritateak materialen neurriari, kostuei eta eskuragarritasunari dagokienez ekarritako mugek ez zuten diseinatzaileen sormena murriztu; aitzitik, berrikuntza eta asmamena sustatzeko eta gutxiagorekin gehiago egiteko akuilu izan ziren.

Orduko arteak eta modak bat egin zuten mugikortasunak jendarte zabalean piztutako erakargarritasunarekin. Joera horren adibide gisa, Austin Mini autoa eta Op Art minigona aipa daitezke, baita Victor Vasarelyk Renaultentzat diseinatu zuen logotipoa ere. Ikusgai dauden ibilgailu batzuek, esaterako *Kakalardoak* eta VW Mikrobusak, agerian uzten dute Volkswagen bezalako etxeek egindako lanari esker demokratizatu ahal izan zela automobila.

Garai hartan, auto konpaktuen kopuruak gora egin zuen European, eta gauza bera gertatu zen ibilgailu handiagoekin AEBn; horrek areagotu egin zuen automobilaren arrastoa bi kontinenteetako hiri- eta landa-paisaietan.

Sporting

Gerraosteko oparoaldi ekonomikoaren urteetan, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan, lehiaketen eskakizun teknikoek, batez ere 1 Formulakoek, areagotu egin zuten "lasterketetako" eta "errepideko" automobilen diseinuaren arteko aldea, diziplina desberdin bilakatzeraino. Abiadura handiko "kirol-autoen" merkaturak hedatu egin zen, eta fabrikatzaileek haien lehiaketako homologoen teknologia hartu zuten.

Erakusketarako hautatutako bost adibideak, bakoitza bere erara, atsegingarriak dira begientzat, errepidean edo zirkuitu itxi batean aritzeko ibilgailu gisa jaio ote ziren alde batera utzita. Haien diseinuetan arteak eta modak bat egiten dute abiaduraren eta abenturaren fantasia asetzeko; kultura garaikideari dagozkion objektu desiragarriak dira, glamourrez beteak. Adibiderik enblematikoenek pantaila handian erakutsi zuten beren irudi ahalmentsua, Hollywoodeko izarrekin lehiatzen protagonismo handiena zeinek bereganatu.

Zenbait artistak eta diseinatzailek, esaterako Andy Warholek eta Ken Adamek, hurrenez hurren, kultuzko objektu gisa erretratatu zituzten automobilok. Frank Lloyd Wright arkitektoak laurogei auto baino gehiago izan zituen bere bizitzan zehar, haietako asko erakusketa honetan jasotako pieza klasikoak. Azken horrena da, hain zuzen, ikusgai dagoen "Automobile Objective" proiektua. 1925ean Gordon Strongentzat sortua, ez zen sekula eraiki, baina arkitektura arloan kiribil formako arrapala bat erabili zuen lehen egitasmoa izan zen, eta elementu hori funtsezkoa izan zuen arkitektoak gerora New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum sortzeko.

Visionaries

Visionaries aretoa XX. mendearen erdialdean hasten da. Ibilgailu utopikoek bidea zabalik zuten ordurako, eta artistek zein diseinatzaileek abiadurarekin eta mugimendurarekin lotutako forma zeharo berriak aztertzeari ekin zioten. Askok gidatzeak etorkizunean izan zitzakeen aukerak aurreratu zituzten, baita beren garaian zenbait hamarkadaz aurrea hartu ere. Automobilerik, gero eta azkarrago joateko nahiak akuilatuta, motorren teknologiak eta forma aerodinamikoek zeuzkaten mugak gainditu zituzten turbinen teknologia berrien, erreazio-motorren, energia nuklearraren eta automatizazioaren bultzadari esker.

Gune honek gorazarre egiten die aitzindari izandako hainbat ibilgailuri eta haien diseinatzaileei, eta forma arinen edertasuna eta aerodinamikaren arloan erdietsitako lorpenak goraipatzen ditu. Automobilak obra futuristen ondoan daude ikusgai, higidurak eta abiadurak liluratuta baitzeuzkan mugimendu hartako kideak. Haien artean nabarmentzekoa da Umberto Boccioniren *Espazioko jarraitutasunaren forma berdingabeak* (1913), haren brontzezko jantziari darion mugimenduari erreparatuta ematen baitu irudia haize-tunel batean dagoela.

Begi kolpe batean, badago antzekotasunik Giacomo Ballaren pintura futuristen eta prototipo bakar gisa egindako autoen artean; horren adibide dira aretoan erakusgai dauden General Motors etxeko 50eko hamarkadako hiru modeloak, zeinak lehenengoz erakusten baitira batera Europan. Hamarkada hartan gidaririk gabeko autoen irudiak ere agertu ziren, orduan zientzia-fikziozko irudipenak baziren ere gaur egun errealitate oso hurbil daudenak. Bada automobil-diseinuaren ikuspegi utopikoa islatzen duen arte- eta arkitektura-maisulan moderno bat: General Motorsen Zentro Teknologikoa, Eero Saarinenek diseinatu, “Versailles industrial” izenez ere deitu izan dena.

Americana

Automobilaren eragina ez da inon nabaritu AEBn bezainbeste. Bertako ekonomia, paisaia eta hirietako zein aldirietako eremuak taxutu ditu autoak, eta munduan beste inon ezagutzen ez den mailaraino definitu du bertako kultura herrikoia. AEB izan zen automobil partikularren erabilera masiboaren onurak ikusi zituen lehenengo herrialdea, baita autoaren erabileran oinarritutako —eta etxetik lanera eta lanetik etxerako eguneroko joan-etorrien ondoriozko nekeak eta isolamendu sozialak jotako—gizarteak eragindako ingurumen-ondorioei aurre egin behar izan zien lehena ere.

Errepideari lotutako erromantizismoa, berealdiko eremu zabaletan eta ostertz amaigabeen barrena herrialde guztian zehar bidaiatzea, kultura estatubatuarren bereizgarrietako bat da, hango errepideetako *diner* eta gasolindegia tradizionalekin batera. Izan ere, 1930eko hamarkadan *New Deal*/programa abian jarri zenetik gaur egunera arte, errepideko bidaia protagonista izan da argazkietan, koadroetan, musikan eta literaturako tratatuetan. Areto honetan, Dorothea Lange, Marion Post Wolcott eta O. Winston Link argazkilarien kameran objektibotik begira dezakegu, baita Ed Ruscha eta Robert Indianaren margolanak behatu ere. Ibilgailuen atze-oihal gisa, Donald Judden eskultura baten doitasunaren eta John Chamberlainen obra baten automobil-aztarna zapalduen arteko kontrastea antzeman dezakegu.

Hemen ikusgai dauden ibilgailuen sorta zabalak agerian uzten ditu zenbait kontraste: atzean hegats nabarmenak dituen luxuzko sedan erraldoi bat, potentzia handiko kirol-auto tipiko bat, kolore deigarriko bolido tuneatu bat, eta Jeep bat, gerrarako asmatua eta bere funtzionaltasun soila duena ezaugarri.

Future

Erakusketaren azken zatia ikasle belaunaldi gazte baten lanari eskainia da, mugikortasuna mende honen amaieran —automobila sortu zenetik bigarren mendeurrena beteko denean— nolakoa izango den imajinatzea gonbidatutako ikasleen lanari. Horrela ixten da erakusketako ibilbidearen zirkulua, autoaren asmatzaileek duela ehun urte baino gehiago gauditu behar izan zituzten zailtasun berei helduta: hirietako auto-pilaketak, baliabideen urritasuna eta kutsadura —hori guztia gaur egun klima-aldaketak areagotua—, oraingoan etorkizunari begira aurkeztuak.

Erakusketarako aukeratutako diseinu eta arkitektura arloko nazioarteko hamasei eskolek —lau kontinentetakoak direnak— askatasun osoa izan dute mugikortasunaren etorkizunaz dituzten ikuspegiak partekatzeko. Areto honetan, maketen, ikus-entzunezkoen, *rendering* irudikapenen, marrazkien eta idazkien bidez erakusten dira haien proposamenak; ikusgai dagoen material guzti horrek agerian uzten du ikasleen eta industriako hainbat kideren, diseinatzaileen, artisten eta arkitektoen artean izan den lankidetzaren.

Areto honek AIC-Automotive Intelligence Center izan du laguntzaile.

Clay Modelling Studio

Modelaketa-tailer bat irudikatzen duen areto honek tamaina errealeko buztinezko ereduen ekoizpena nola egiten den erakusten du. 1930eko hamarkadan General Motorseko diseinu-buru zen Harley Earl ospetsuak asmatu zuen prozesu hori. Teknologia informatikoaren eta errealitate birtualaren aurrerapenak gorabehera, tradizio horrek bizirik dirau industrian. General Motorsen Cadillac markari esker museoan eraikitako buztinezko modelaketa-estudioaren erreplikazuzenean ikusiko ditugu etxe horretako eskultoreak LYRIQ EV modelo lanean. Begien bistan ikusiko da tailer horiek nolako antzekotasunak dituzten eta izan dituzten artisten lantegiekin.

Autoen maketak

Gune honetan agerian geratzen da automobilaren garrantzi kulturala ibilgailuetatik harantz zabaltzen dela eta bai jostailuen bai maketen mundua ere barnean hartzen duela. Hans-Peter Porsche Traumwerk Bildumari esker, objektu mekanikoak bereziki balioesten ziren garai bateko artefaktu-sorta zoragarri bat dago ikusgai. Horiekin batera eskalako automobil-erreplikak zenbait maketa ere badaude, miniaturazko pinturretan eta iruditxoetan nahiz bitxigintzako piezetan ikus daitezkeen maisutasun beraz eginak.

NORMAN FOSTER FOUNDATION

Norman Foster Foundationek diziplinarteko pentsamendua eta ikerketa sustatzen ditu, arkitekto, diseinatzaile eta hirigileen belaunaldi berriei etorkizunari aurrea hartzen laguntzeko xedez. Gizarteari zerbitzu hobea eman ahal izateko arkitektura, diseinua, teknologia eta arteak elkarri lotzeak duen garrantzian sinesten du Fundazioak; ikerketaren eta proiektugintzaren bidez esperimentazioa sustatzen duen hezkuntza holistikoaren garrantzian eta balioan sinesten du. Norman Foster Foundationek Artxiboa eta Liburutegia ditu, gure ingurune eraikiaren historiaren ikuspegi zabalagoa eskaintzen dutenak. Norman Foster Foundationek Madril du egoitza eta mundu osoan gauzatzen ditu proiektuak. Nazio Batuen erakundeak Bikaintasun Zentro izendatu du.

Norman Fosterren biografia

1961ean Manchesterreko Unibertsitatean Arkitekturan eta Hirigintzan lizentziatu ondoren, Norman Fosterrek Yale Unibertsitateko Henry beka jaso zuen; bertan, Jonathan Edwards Collegeko *Fellow* izan zen, eta Arkitekturako Masterra eskuratu zuen. 1967an Foster Associates sortu zuen, ondoren Foster + Partners bihurtua. Bertan dihardu Presidente Exekutibo gisa.

1999an Arkitekturako 21. Pritzker Saria lortu zuen, eta 2002an Tokioko Praemium Imperiale Arkitektura Saria. 2009an Arteetako Príncipe de Asturias Sari ospetsua jaso zuen sariketaren 29. edizioan, baita Alemaniako Errepublika Federaletako Merituaren Ordenako Zaldun Komendadorearen Gurutzea ere. 1997an Isabel II.a erreginak Merituaren Ordenarekin saritu zuen, eta biziarteko noblezia-titulua eman zion: Lord Foster of Thames Bank. Nazio Batuen Forum of Mayors eztabaidagunean parte hartzen du.

DIDAKTIKA

Didaktika proiektuaren barruan Museoak hezkuntza-guneak eta jarduerak diseinatzeko erakusketen osagarri izateko, bisitariei bai aretoetan bai online tresnak eta baliabideak eskaintzeko helburuz, ikusgai dauden obrak balioesten eta hobeto ulertzen laguntzeko.

Oraingoan, Didaktika guneak hartzen duen korridorea *Americana* aretotik abiatu eta *Future* aretoraino doa. Bertan, erakusketan bildutako autoen ikuspegi orokorra aurkezten da kronologikoki antolatutako silueta minimalisten bidez. Automobilaren eboluzioa laudatzeko eta gorpuzteko xedea duen soinu-esperientzia murgiltzaile bat ere bada korridore horretan. Esperientzia hori Pink Floydeko kide Nick Masonek diseinatu du, eta Ten Tents eta Sennheiser etxeekin lankidetzan estuan garatu da AMBEO soinu-teknologia murgiltzailea erabiliz. Erakusketako zenbait ibilgailu mugimenduan grabatu dira, eta korridoretik ibili ahala entzun daiteke beren soinua.

Erakusketaren inguruko jarduerak:

Aurkezpen-hitzaldia Norman Fosterren eskutik (apirilak 7)

Erakusketaren sarrerako hitzaldian, automobilaren historiari eta haren bilakaera estetikoari eta teknologikoari nahiz pinturarekin, eskulturarekin, arkitekturarekin, argazkigintzarekin edo zinemarekin dituen loturei buruzko mende batetik gorako ibilbidea egingo da, esparru museografiko paregabea. Hitzaldia Lekha Hileman Waitoller-ek, erakusketaren komisarioak eta Museoko arte-arduradunak, moderatuko du, eta, bertan, hizlari nagusi gisa parte hartuko du Norman Foster-ek, erakusketako zenbait prestatzaile garrantzitsuekin batera.

Sormen-saioa Autoak buztinarekin modelatzea tailerra (apirilak 9)

Buztinarekin eskalan modelatzeko lana automobil baten diseinuaren aldetako bat da. Cadillac enpresak *Motion. Autos, Art, Architecture* erakusketarako ematen duen laguntzaren parte gisa, etxe horretako hainbat eskultorek lehen irekiera-egunean begien bistan modelatzen ari zuten 204 aretoan. Era horretan, helduei ezohiko tailer bat eskainiko zaie, eta, bertan, azalpen teknikoak buztinarekin modelatzeko lanarekin konbinatuko dira.

Miguel de la Viaren automobil-bilduma (Loizaga Dorrea) ezagutzeko hitzaldia (apirilak 26)

Maria Lopez-Tapiak eta Patricio Careagak partekatuko dituzte Europako auto klasiko eta zaharren bilduma partikular handienaren jatorriari eta garapenari buruzko xehetasunak. Bilduma Miguel de la Via enpresariarena da, eta Bizkaiko Galdames herriko Loizaga Dorrean dago. Jarduera *Motion. Autos, Art,*

Architecture erakusketa dela-eta antolatu da. Izan ere, Loizaga Dorreak bere automobiletako bat maileguan utzi du erakusketarako; hots, Ford Model T (1914) enblematikoa, eta Museoko 202 aretoan ikus daiteke.

Hausnarketa partekatuak*

Aurrez aurreko bisitaldiotan, Guggenheim Bilbao Museoko profesionalek erakusketako edukien inguruko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzte:

- Arte-arduradunen ikuspegia (maiatzak 4): Lekha Hileman Waitoller-ek, Museoko arte-arduradunak, erakusketako obra nagusiei buruzko azalpenak emango ditu bisitaldi batean.
- Funtsezko kontzeptuak (maiatzak 18): Luz Maguregui, Hezkuntzako eta Interpretazioko koordinatzailea, obren alderdi didaktikoei buruz hitz egingo du aretoetara bertaraten direnekin.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

Motion proiektzio zikloa (uztailak 1-2-3)

Museoak zinema arratsaldeak antolatu ditu ziklo honen bitartez, automobilaren omenezko erakusketa honekin lotutako programazioan. Bidaia ostiralean hasiko da, lehenengo autoekin, familiako kide berriarekin; larunbatean hainbat belaunalditako gazteak protagonista dituzten film ikonikoekin jarraituko du, eta igandean azeleragailua zapaltzen amaituko da. Egile-zinema eta izenburu komertzialagoren bat ere Guggenheim Bilbao Museoko Auditoriumeko pantaila handian ikusi ahal izango dira.

Katalogoa

Erakusketari laguntzeko ilustrazio ugari biltzen dituen katalogo osatu bat argitaratu da. Ivorypressek editatu du Guggenheim Bilbao Museoarekin batera. 273 orriko liburukiak 38 saiakera labur jasotzen ditu, irakurleei erakusketan bildutako gai ei eta edukiei buruzko informazio gehiago eskaintzeko helburuz hainbat adituk idatziak.

MOTION

AUTOS ART ARCHITECTURE

Babesleak:



Laguntzaileak:



Ongilea:



Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketina eta Komunikazioa saila

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Norman Foster Foundation

Santiago Riveiro

Head of Communications

Tel: +34 913 898 965

press@normanfosterfoundation.org

www.normanfosterfoundation.org

Prentsak erabiltzeko irudiak
Motion. Autos, Art, Architecture
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsa-irudien online zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratuz gero, erakusketen eta eraikinaren bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatu ahal izango dituzu. Oraindik konturik ez baduzu, erregistratu eta deskargatu behar duzun materiala.

Dagoeneko erabiltzailea bazara, adierazi erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta sartu zuzenean irudiak deskargatzeko orrian.

- *Motion. Autos, Art, Architecture* erakusketaren publizitatea egiteko soilik erabiliko dira irudi horiek. Erakusketa 2022ko apirilaren 8tik irailaren 18era egongo da zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Osorik agertu behar dira, moztu gabe, ezer gainjarri gabe eta manipulatu gabe. Erreproduzioekin batera, artistaren izena, obraren izena eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua adierazi behar dira.
- Online argitaratutako irudiak segurtasun-neurri elektroniko egokien bidez babestu behar dira.
- Irudiek gehienez 1.000 pixeleko bereizmena izango dute alderik luzeenean. Online argitalpeneko fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin da izan deskargagarria.
- Irudiak ezin zaizkie transferitu hirugarrenei edo datu-baseei.
- Irudiak azalean erabiliz gero, baliteke zerbait ordaindu behar izatea, eta obraren copyrightaren jabe eta titullarrak baimena eman beharko du.

Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoko prentsa-eremuarekin, telefonoz (+34 944 359 008) edo posta elektroniko bidez (media@guggenheim-bilbao.eus).

R. Buckminster Fuller

Dymaxion #4, 2010 (#1-3etan oinarritua, 1933-34)

Foster Family Collection

© Norman Foster Foundation



Jean Bugatti

Bugatti Type 57SC Atlantic, 1936

Merle & Peter Mullin, Melani & Rob Walton and the Mullin

Automotive Museum Foundation

© Argazkia Michael Furmanena



Wifredo Ricart

Pegaso Z-102 Cúpula, 1952

Louwman Museum

© Louwman Museum



Franco Scaglione

Alfa Romeo BAT Car 7, 1954

Rob and Melanie Walton Collection

© Argazkia Michael Furmanena



Giotto Bizzarrini

Ferrari 250 GTO, 1962

Ten Tents

© Ben de Chair



Harley Earl

General Motors, Firebirds I, II eta III, 1954–58

General Motors

General Motors / Argazkia: Rodney Morr



Andreas Gursky

1 Formula Geldialdia boxetan I (F1Boxenstopp I), 2007, *Geldialdia boxetan (Boxenstopp)* sailekoa, 2007

Koloretako kopia Diassec gainean

178 × 497 cm

Fondation Louis Vuitton, Paris, Frantzia

© Andreas Gursky / Courtesy Sprüth Magers / VEGAP, 2022

Argazkia: © Fondation Louis Vuitton / Marc Damage



John Owen (Diseinatzailer nagusia)

Mercedes-AMG F1 W11 EQ Performance Formula One Racing Car, 2020

Mercedes-Benz Classic

© Mercedes-Benz AG



Constantin Brancusi

Arraina (Le Poisson), 1926

Brontze leundua

13,5 × 42 cm

8tik 3. alea Courtesy Kasmin Gallery

© Succession Brancusi - All rights reserved, VEGAP, 2022



Umberto Boccioni

Espazioko jarraitutasunaren forma berdingabeak (Forme uniche della continuità nello spazio), 1913 (1972an galdatua)

Brontzea

117,5 x 87,6 x 36,8 cm

Tate, purchased 1972

© Tate

**Andy Warhol**

Benz Patent Motor Car (1886), 1986

Serigrafia eta akriliko mihise gainean

153 x 128 cm

Mercedes-Benz Art Collection, Stuttgart / Berlin. Acquired 1986

© 2022, The Andy Warhol Foundation for the Visual Arts, Inc./VEGAP

Argazkia: Uwe Seyl, Stuttgart

**Christo**

Volkswagen bildua (Volkswagen Kakalardoaren 1961eko erakustazokarako proiektua) [Wrapped Volkswagen (Project for 1961 Volkswagen Beetle Salon)], 2013 (Proiektua: 1961)

Collage grafikoa: jatorrizko Volkswagen autoa oihalez estalia eta gainetik eskuz margotuta

55,8 cm x 71 cm, XC aletik L. alea + 160 + 50 AP + 15 HC

Galerie Breckner

© Christo, VEGAP, Bilbo, 2022

**O. Winston Link**

Lurrun-trena ekialderantz, laeger, Mendebaldeko Virginia (Hot Shot Eastbound, laeger, West Virginia), 1956

Zilar-gelatinazko inprimaketa

39,4 x 49,5 cm

Detroit Institute of Arts. Founders Society Purchase with funds from

Joy C. Emery and the Elizabeth P. Kirby Fund

Argazkia © Christie's Images / Bridgeman Images

**Bridget Riley**

Ch'i-Yün, 1974

Akriliko liho gainean

210,5 x 211,5 x 5,7 cm

Collection Cranbrook Art Museum, Bloomfield Hills, Michigan. Gift of

Rose M. Shuey, from the Collection of Dr. John and Rose M. Shuey.

© Bridget Riley, VEGAP, Bilbo, 2022

Argazkia: © Cranbrook Art Museum and Cranbrook Educational Comm



Alexander Calder

Urtarrilak 31 (31 Janvier), 1950

Aluminiozko xafla eta altzairuzko kable margotuak

385 x 575 cm

Centre Pompidou, Musée National d'Art Moderne / Centre de création industrielle, Paris, Frantzia. Purchased by the State, 1950. Attributed 1959

© 2022 Calder Foundation, New York / VEGAP, Madril



Margaret Bourke-White

DC-4 hegazkina New York gainetik hegatu (A DC-4 Flying Over New York City), 1939

Argazkia

76,2 x 96,5 cm

Ed. 6/40

Foster Family Collection

© Margaret Bourke-White, VEGAP, Bilbo, 2022

© LIFE Gallery of Photography



Edward Ruscha

Standard gasolindegia (Standard Station), 1966

7 koloretako serigrafia

65 x 101,6 cm

AP

Courtesy of the artist

© Ed Ruscha



Frank Lloyd Wright

Gordon Strong Automobile Objective eta Planetarioa (eraiki gabea), Sugarloaf Mountain, Maryland [Gordon Strong Automobile Objective and Planetarium (unbuilt), Sugarloaf Mountain, Maryland], 1924-25

Ikuspegia

Koloretako arkatzak kalko-paper gainean

50,8 x 78,7 cm

The Frank Lloyd Wright Foundation Archives (The Museum of Modern Art | Avery Architectural & Fine Arts Library, Columbia University, New York)

© 2022 The Frank Lloyd Wright Foundation, Scottsdale, Arizona

© Frank Lloyd Wright, VEGAP, Bilbo, 2022



Ezra Stoller

General Motorsen Zentro Teknologikoa
(*General Motors Technical Center*), 1956

Argazkia

General Motors



Albert Kahn

Ford Motor Company Highland Park fabrikaren 1924ko airetiko
ikuspegiaren irudikapena 1924an (Ford Motor Company Highland
Park Rendering bird's eye view in 1924), 1924

Tinta paper gainean

85,4 x 227,3 cm

Collection Cranbrook Art Museum, Bloomfield Hills, Michigan. Gift of
the Estate of John Bloom



Lord Foster of Thames Bank

Copyright © GA/Yukio Futagawa

Eskaintza: Norman Foster Foundation



ERANSKINA I

Erakusketan bildutako automobilak

BEGINNINGS

- Benz Patent Motor Car, 1886.
- Elektrischer Phaeton, Modell Nr. 27, System Lohner -Porsche, 1900
- Rolls Royce 40/50 'Alpine Eagle', 1914
- Ford T Tourer, 1914
- Bugatti Type 35, 1924
- Voisin C7 Lumineuse, 1925
- Chrysler Airflow, 1934
- Tatra T87, 1948

SCULPTURES

- Bugatti Type 57SC Atlantic, 1936
- Delahaye 165, 1939
- Pegaso Z-102 Cúpula, 1952
- Bentley R-Type Continental, 1953

POPULARISING

- Voiture Minimum, 1936
- Volkswagen Type 1, "Beetle", 1951
- VW Type 2 Microbus Deluxe "Samba", 1962
- BMW 600, 1957
- Fiat Nuova 500, 1957
- Citroën 2CV Sahara, 1961
- The Mini, 1966
- Renault 4, 1968
- Minissima, 1972

SPORTING

- Porsche 356 Pre-A, 1950
- Mercedes-Benz 300 SL Coupe, 1955
- Ferrari 250 GTO, 1962 / Ferrari 250MM Berlinetta Carrera Panamerica, 1953
- Jaguar E-Type, 1963
- Aston Martin DB5 James Bond, 1964

VISIONARIES

- Alfa Romeo BAT 7, 1954
- Firebird I, 1954
- Firebird II, 1956
- Firebird III, 1958
- Dymaxion Car #4, 2010
- Lancia Stratos Zero, 1970
- Citroën DS, 1971
- Mercedes-AMG F1 W11 EQ Performance Formula One Racing Car, 2020

AMERICANA

- Ford Pierson Brothers Coupe, 1934
- Willys MB, 1945
- Cadillac Eldorado Biarritz, 1959
- Ford Mustang PRJCT50, 1965

ERANSKINA II

Unibertsitate Kolaboratzaileak – *Future Aretoa*

ARTCENTER COLLEGE OF DESIGN, PASADENA,
KALIFORNIA, AEB

Kideak

Ford Motor Company, AEB

Genesis, AEB

Honda Motor Company, AEB

Spinifex Group, AEB

BERLAGE ZENTROA, ARKITEKTURA ETA HIRI
DISEINUKO IKASKETA AURRERATUAK

GRAMAZIO KOHLER RESEARCH, ETH ZURICH,
SUITZA

Kideak

NVIDIA, Alemania

Lenovo, Austria

HONGIK UNIBERTSITATEA, SEUL, HEGO KOREA

Kideak

Hyundai Motors, Hego Korea

Kilo Design, Hego Korea

MecaLab, Hego Korea

Daejin Tech Industry Co., Hego Korea

Keit, Hego Korea

Hongik Smart Mobility Center, Hego Korea

MASSACHUSETTSEKO TEKNOLOGIA INSTITUTUA
(MIT), CAMBRIDGE, MA, ESTATU BATUAK

SCUOLA DEL DESIGN, POLITECNICO DI MILANO,
ITALIA

Kidea

Italiako Kultura Ministerioaren Sorkuntza

Garaikiderako Zuzendaritza Nagusiak 2021eko

Italian Council programaren baitan emandako

laguntzarekin egina

ROYAL COLLEGE OF ART, LONDRES, ERRESUMA
BATUA

Kideak

Bentley Motors Limited, UK

Lexus Europe

MONTERREYKO TEKNOLOGIKOA,
ARKITEKTURA, ARTE ETA DISEINU ESKOLA

Kideak

Iberdrola, Espainia

TSINGHUA SHENZHEN GRADUONDOKO
NAZIOARTEKO ESKOLA, TXINA

Kideak

BYD Auto Co., Ltd, Txina

New York Institute of Technology, AEB

UMEÅKO DISEINU INSTITUTUA, SUECIA

Kideak

Geely Auto, Txina

BMW AG, Alemania

LURMUTUR HIRIKO UNIBERTSITATEA,
HEGOAFRIKA

TOKIOKO UNIBERTSITATEA, JAPONIA

Kidea

Chiba Manabu Architects

MONDRAGON UNIBERTSITATEA, ESPAINIA

Kidea

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles (CAF
taldea), Espainia

TECNUN. NAFARROAKO UNIBERTSITATEA,
ESPAINIA

Kideak

Grupo Antolin, Espainia

CEIT-BRTA teknologia-zentroa,
Espainia

Parklex, Espainia

SQAdrones, Espainia

Ecomagnet, Espainia

YALEKO ARKITEKTURA ESKOLA, NEW HAVEN,
AEB

Kidea

Volkswagen, Germany